

Oholtzarako bertigoa aliatu onekin gainditzen

Umetatik zekarren artista sena kolektiboan garatu du ondarrutarrak.

Nerea Gartzia Gartzia



Nerea Gartzia Gartzia (Ondarroa, 1976) artista da. Ondarroako Zubi Zahar Herri Ikastolan eta institutuan ikasi ostean eta batean eta bestean lehenengo saioak egin eta gero, antzerki eskolak jaso zituen, eta umetatik antzerkirako zekarren bokazioari hauspoa eman. Beranduago, eten bat etorri zen: kide batzuek Madrilerako hartu zuten bidea ez zuen aukeratu berak. "Nik ez nuen Madrilerara joan nahi izan. Jarraiko kide nintzen, eta gustura nengoen berton", azaldu du.



Antzerkiak diru sarrerarik bermatzen ez zionez, Eika lantegian hasi zen lanean. Bi urte egin zituen han, eta haurdun geratu eta gero, utzi egin zuen. Ez zen geldi egon, ordea, erizain laguntzaile ikasten hasi zen eta. Nahiz eta ikuskizun munduan bete-bete sartu barik egon, Txomin L. Aramaiorekin ikuskizunak egiten hasi zen: Elepunto eta PuntoG deitzen zen osatu zuten bikotea. "Momentu gako batzuetan, Txomin lagun oso ona izan da ikuskizun mundura bueltatzeko. Bikote ona egin izan dugu, jaietako txosnen zabalkundean, adibidez", gogorarazi du. Eta horrek beste gogoeta batera eraman du. "Egia esan, proposamenak jaso izan ditudanean, bertigoa bai sentitu dut, baina ez horrenbeste, ze beti eduki izan ditut aliatu onak".

Oholtzarekin bazeukan kontaktua urtean behin bada ere. Ez berak nahiko zukeen beste, alabaina. "Garai hartan amatasun fasean nengoen, eta horrez gain portuan lan egiten nuen. Urte askoan eduki izan dut harremana portuarekin —ikasle garaitik—, eta nahiz eta oso gogorra izan eta une latzak bizi izan, neure plaza huraxe zen. Hori baino gehiago ere bai: nire harrobia izan zen gerora begira, ze emakume askorekin egin dut lana, eta ekarpena egin didate, bai pertsonaiak sortzeko, bai neure bizitza pertsonalerako. Eta portuan egunero zegoen ikuskizuna".

Bigarren umeaz erditu ostean, ikastolako dantza eskola batzuetan sorkuntzarako gogoia piztu zitzaion berriro, eta Binahi antzerki eta ikus-entzunezkoen ekoiztetxean ikasten eta mundu horretan saioak egiten hasi zen. Tarte horretan, Irrien Lagunak-erako elkarrizketatu zuten —Pirritx, Porrotx eta MariMotots pailazoen inguruan sortutako enpresa—. "Momentu horretan, gainera, batetik, Ibilaldiaren prestaketan genbiltzan Zubi Zahar Herri Ikastolan, eta bestetik, hauteskundeak tartean izanda eta ezker abertzalea legez kanpo zegoelarik, horren aldeko lipduba prestatzen, Nekane Akarregi artista ondarrutarraren proposamenez —Beste *kamikazada* bat—. Ibai Muñiz ere batu zitzaigun". Azken horrekin, proiektu batean murgilduta zebilen: Galiziatik Ondarroara etorritakoen lekukotzak jasotzen ikus-entzunezko baterako. "Neu gailegoen ondorengoa izanik, parte hartzea proposatu, eta horretan ere aritu ginen", dio.

Irrien Lagunak-en Marikalanbre pertsonaia gorpuzteko hartu zuten Gartzia, eta berarekin Euskal Herrian txokorik txoko egin zituen hamabi urte. Azkeneko urteetan Eneko Arrate artista markinarrak eta biek Herribixi sortu zuten, antzeman zutelako bazegoela sorkuntza tokian tokian indartzeko premia. "Ikusten genuen gure lana suak piztea izan behar zela, alegia, hazia botatzea. Horretarako, eskolak eman genituen Lea-Artibain. Horrez gain, besteak beste, ondare jardunaldietan parte hartu izan dugu edo Euskararen eupadi ikastetxeen arteko lehiaketa antolatuta".

Pandemia garaia aliantza berriak egiteko baliatu zuen Gartzia. Herriko aktoreak batu eta bakarrikzaketak edo piezak prestatu zituzten sare sozialen bidez etxeetara heltzeko, eta hor Ainhua Etxebarria ondarrutarrarekin bat egin zuen. Altxatune, Eneko Arrate, Andoni Gartzia, Ainhua Etxebarria eta bera batu, eta Leartibain, kultura erain proiektuari forma eman zioten. Taldearen dinamikari dagokionez, emakume biek lantzen dute hasierako hazia, eta taldera pasa.

Etxebarria aipatuta, haxe esan du: "17 urteko aldea daukagu, eta aukeratu dugun lanbide honetan egoera berdinak bizi izan ditugu". Horri eutsita, Bibitxa sortu zuten. Dio Gartzia emakume modura bazterketa sufritu dutela eta bigarren planoan sentitu izan direla sarri. "Eneko eta biok ibili izan garenetan, normalena izaten zen leku batera heldu eta kontratatzailea berarengana joatea, alegia, bera izatea erreferentzia, nahiz eta kontratazioa nirekin lotuta



egon. Eta hori bai hasieratik markatu nahi izan genuen Enekok eta biok: harremanetarako neu izatea aurpegia edo erreferentzia eta ez bera. Ez da kasualitatea. Izan ere, lan asko kontzientziazat egin izan ditugu. kontuan hartu behar da Irrien Lagunak-etik gatozela, eta hor feminismoaren oinarriak landu ditugu".

Idea bat bestearekin kateatuta, iruzurgilearen sindromeaz oroitu da. "Ziur ez sentitzea. Beldurrak. Emakume modura epaitua izateko daukazun beldurrak, batez ere pertsonaia batzuk karakterizatzean, badakizulako batzuek zelan begiratzen zaituzten", zehaztu du.

Bibitxa proiektuan, emakumea eta umorea lotzen ari gara

Etxebarriarekin egiten duen tandemaz hitz egin du. "Bibitxan aske sentitzen gara. Emakumea eta umorea lotzen ari gara, lotura hori zelan egin arakatzen, gure euskalkiarekin jokatzeko, umorerako oso baliogarria zaigulako".

Ondarrutarraren esanetan, oso eredu gutxi daude Euskal Herrian umorearen munduan, eta daudenak oso maskulinoak dira. Elkarlan horretan, esperientzia ederrak bizi izan dituzte, Zaballako kartzelako emakume presoekin egon zirenekoa, kasu. "Umorea egin genuen presoen inguruan, eta hori ere erronka handia zen".

Elkarlanaren azken emaitza izan da Bilboko Pabellon 6eko Antzerki Arinen Jardunaldietako 2025eko Kriseilu saria. Artista bien *Hil da jainkosa* antzezlanak eta Ugaitz Alegriak Getari Etxegararekin batera antzeztutako *Destiny Driver* piezak Kriselu Saria lortu dute, *ex aequo*.

Artista ezezik, komertziala ere bada Gartzia. Besteak beste, Tinko euskara elkartearen Euskara zinema aretoetara programako emanaldiak lotzen dihardu. Aparteko jardueren artean, Ondarroako Andrak erramutan taldeko kide da. "Erronka handia, ze erramutan ikasi behar genuen, dena lortu behar genuen, eta 45 urtetik gorako emakumeak gara, hau da, ikusezinak. 37 emakume, bakoitza bere historiarekin, bere pentsaera eta koloreekin. Oso gustura nago, antzeko sasoiko emakumeekin bizipenak partekatzen, gorputz desberdinetik, lehiak albo batera utzita kirolaz gozatzen, ikasten eta ahalduntzen. Eta elkarrekin bakoitzaren lotsak eta autoepaiak jausten ikustea oso lorpen handia izan da. Atsegin handia: kolektiboa eta pertsonala. Gauza ederra da jabetzea besteek ere norbere laguntzarekin horma batzuk apurtu dituela. Horrelakoetan, Madrilgo ikasketekin gogoratzen naiz, asko eztabaidatzen genuelako horren inguruan teatro foro sozialean, hots, zer den kolektiboa eta zer indibidua".

Asmo berriak dituzte esku artean emakume arraunlariak. Eta aurreratzen du: "Orain portua okupatzera goaz. Eta ederra litzateke atzetik beste emakume batzuei lekua egitea edo elkarrekin gauzak partekatzea".

.

